



**DONOSTIAKO BASERRITAR JANTZIEN VII. LEHIAKETA**  
**VII CONCURSO DE TRAJES DE BASERRITARRA**

**BOULEVARDEKO KIOSKOAN | 11:30EAN**  
**EN EL QUIOSCO DEL BOULEVARD | 11:30 HORAS**

Gero Axular Dantza Taldeak, Donostiako Udaleko Donostia Kultura Festak sailarekin batera, baserritar jantzien lehiaketa antolatuko du Boulevardeko kioskoan, #dotorejantzi ekimenaren barruan. Lehiaketaren helburua, baserritarrez janzteko aukeretan baserritar jantziaren erabilera duina bultzatzea eta zabaltzea da, eta herritarrak, jantzi horiek soinean dituztela egunaz gozatzera irtetea, betiere, jatorrizko diseinuak eta erabilerak arretaz eta begirunez zainduta. Era berean, tradiziozko datorkigun ondarea berreskuratu eta aldarrikatu ere egin nahi da, gogoraraziz jantzi tradizional horiek Euskal Herri osoko historiaren eta identitate kulturalaren ikurretako bat ere badirela.

Lehiaketan, bi alderdi baloratuko dira: alde batetik, jantziaren diseinua; eta, bestetik, jantziaren atal guztiak janzteko era egokia.

#### **PARTE-HARTZAILEAK ETA KATEGORIAK**

- Taldeak: gutxienez 3 kidek eta, gehienez, 5 kidek osatua egongo da, eta gutxienez heldu bat izango du (+13 urte).
- Haurren kategoria, nesken jantzia: 5 eta 12 urte artean.
- Haurren kategoria, mutilen jantzia: 5 eta 12 urte artean.
- Gazte eta helduen kategoria, emakumezkoen jantzia: 13 urtetik aurrera.
- Gazte eta helduen kategoria, gizonezkoen jantzia: 13 urtetik aurrera.

Kategoria bakoitzean, gehienez ere, 20 lagunek edota taldeak parte hartu ahalko dute, eta izen-ematearen ordena jarraituko da, toki libreak bete arte.

#### **IZEN-EMATEAK**

Parte-hartzaileek izena emateko aukera izango dute abenduaren 1eko 12:00etatik abenduaren 20ko 12:00ak arte, [www.dotorejantzi.geroaxular.eus](http://www.dotorejantzi.geroaxular.eus) webgunean. Formulario bat bete beharko dute lehiaketan parte hartu nahi dutenek, eta ondoren, antolakuntzaren mezu bat jasoko dute, izen-ematea berresteko.

Jantzia behar bezala janzteko aholkuak ere web orrian egongo dira, abarkak nola lotu, zapiak nola jantzi eta abar.



Gero Axular Dantza Taldea, con la colaboración de Donostia Kultura Festak del ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, bajo el lema #dotorejantzi, organizan un concurso de trajes de Baserritarra en el Quiosco del Boulevard con la intención de potenciar y difundir el uso digno del traje de baserritarra en las ocasiones en que se utilice. El objetivo del concurso es impulsar y difundir el uso digno del traje de baserritarra y que los ciudadanos salgan a disfrutar del día siendo respetuosos con los diseños y usos originales.

Asimismo, se pretende recuperar y reivindicar el patrimonio que nos viene de la tradición recordando que estas prendas tradicionales son también uno de los símbolos de la historia y de la identidad cultural de todo Euskal Herria.

El concurso valorará tanto el diseño del traje como la forma adecuada de ataviarse.

## PARTICIPANTES Y CATEGORÍAS

- Grupo: se compone como mínimo de 3 personas y como máximo de 5 personas, entre las cuales tiene que haber como mínimo una persona adulta (+13 años).
- Infantil femenino: entre 5 y 12 años.
- Infantil masculino: entre 5 y 12 años.
- Juvenil y adulto femenino: a partir de 13 años.
- Juvenil y adulto masculino: a partir de 13 años.

En cada categoría podrán participar, como máximo, 20 personas/grupos, y se seguirá el orden de inscripción hasta completar las plazas disponibles.

## INSCRIPCIONES

La inscripción al concurso puede realizarse a partir del día 1 de diciembre a las 12:00 hasta el día 20 de diciembre a las 12:00 en la web [www.dotorejantzi.geroaxular.eus](http://www.dotorejantzi.geroaxular.eus). Los participantes solicitarán la inscripción cumplimentando el formulario preparado al efecto y recibirán la confirmación por parte de la organización. También se podrán consultar algunos consejos para vestir el traje correctamente, como, por ejemplo, cómo atarse el calzado o cómo ponerse el pañuelo de la cabeza...